- Arau-hausteei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonak babestearen gaineko otsailaren 20ko 2/2023 Legean ezarritako informatzaileen babesa Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzari esleitzea, V. tituluan jasota dagoen moduan.*

Jasotako dokumentuaren kopia berehala bidali zitzaizen Kontseiluaren Osoko Bilkurako kide guztiei, euren proposamenak eta iritzia igorri eta horien berri lan-batzorde egokiari helaraz ziezaieten, Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen Funtzionamendu Araudian ezarritakoari jarraiki. 2023ko urriaren 19an Ekonomia Garapenerako Batzordea bildu zen, eta bertan hartutako erabakiak oinarri hartuta, Irizpen-proiektua egin zen Kontseiluak urriaren 27an egindako Osoko Bilkuran aurkezteko. Aho batez onetsi zuten.

II.- EDUKIA

Lege-aurreproiektuak azalpenen zatia eta xedapenen zatia ditu: 84 artikulua, 5 titulutan banatuta; xedapen iragankor bat eta azken xedapen bat.

Azalpenen zatia

Aipatuenez, lege-aurreproiektu honek amaiera ematen die azken urteetan EAEn gardentasunaren kontzeptu nagusiar buruzko lege-erregulazio bat ezartzeko egindako ekimenei, eta, gobernantza berriaz eta gobernu onaz gain, ekintza politiko ororen diseinu aurreratuen funtsezko elementu bihurtu da.

Ondoren, azaldu du orain arte ez dela garatu Euskadin gobernu irekiaren kultura modu integralean bultzatzen duen lege bat, nazioarteko estandarrei jarraituz, gardentasunaren, integritatearen, kontuak ematearen eta herritarren parte-hartzearen printzipioetan oinarrituta. Hala ere, duela hamarkada batetik hona, administrazio guztiek, tokikoek, foralek edo EAEko

administrazioak berak, hainbat erritmo eta mailatan, gobernu irekia bultzatzeko politikak, arauak, planak eta tresnak garatu dituzte¹.

Hauxe da tesia: arduradun publikoak erraz aztertzen direnean eta herritarrek, beren erakundeek lortzen dituzten benetako gardentasun-mailei esker, jakin dezaketenean nola hartzen diren eragiten dieten erabakiak, nola erabiltzen diren funts publikoak edo zer irizpideren arabera jarduten den beren ongizate kolektiboan eta indibidualean eragiten duten politika publikoak eta helburu sozialak lortzeko, hau da, benetako gardentasun maila handia denean, orduan laguntzen da herritarrek gai publikoetan parte-hartze hobea eta oparagoa izan dezaten.

Bertan azaltzen denez, lege-aurreproiektuak hainbat helburu eta xede ditu, eta bi bertsio nagusitan laburbil daitezke.

Alde batetik, gardentasuna sustatzeko kudeaketa-tresna nagusiei buruzko legeria espezifikagoa garatu da, eta, lehen alderdi horretan, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen oinarritzko testuinguruan dago. Jarduera publiko osoaren publizitate aktiboa eta herritarrek informazio publikoa eskuratzeko duten eskubidea dira funtsezko bi elementuak.

Ildo horretan, urtero Gobernu Kontseiluari jakinarazteko bidaltzen zaizkion gardentasunaren balantzeari buruzko txostenetan lortutako informazioa aztertuta, hobetzeko aukerak ikusten dira, betiere eskubide horren hedapen handiagoari, erantzuteko epeak eta administrazio-isiltasuna murrizteari, herritarrek gehien eskatzen duten informazioa modu proaktiboan argitaratzeari eta abarri dagokienez.

Bestalde, Informazio Publikoaren Sarbiderako Euskal Batzordeak aurkezten diren erreklamazioak ebazteko eskumenak baino ez ditu, eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidea bermatzeko organo bat eratu behar da, gaur egun Batzordeari ematen zaizkionak baino eginkizun gehiago izango dituenak.

Gainera, lege berri honek aukera ematen du gardentasunaren kontzeptua beste zentzu zabalago batean burutu ahal izateko behar diren tresnak gauzatzeko, hau da, gure eremuan eta Euskal Sektore Publiko osoan arau-hausteei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonak babesteko sistema berria ezartzen amaitzeko. Hala, Europako Zuzenbidearen (2019/1937 Zuzentaraua) eta haren transposizioaren eremuan egongo gara, otsailaren 20ko 2/2023 Legearen bidez (arau-hausteei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesa arautzen duena).

Xedapenen zatia

I. tituluan xedapen orokorrak daude jasota. "Programatiko" deritzen arau bat da, eta, beraz, helburuen, xedeen, printzipioen eta eskubide eta betebeharren zerrenda orokorrak daude jasota, betiere legearen aplikazio-esparruaz gain. Bi alderdi handi bereizten dira eremu horri dagokionez. Lehenik eta behin, gardentasunari buruzko arau espezifikoak eta horien adierazpenei buruzko alderdia, publizitate aktiboari eta informazio publikoa eskuratzeko eskubideari dagokienez; eta, bigarrenik, informatzaileak babesteko eta ustelkeriaren aurka borrokatzeko Europako sistema ezartzeari buruzko alderdia dena.

Aplikazio-eremua Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa baino ez da, eta, beraz, badirudi EAEko erakunde-maila bakoitzak bere antolaketa duela, hala nola toki-maila, arautzen duen Legearen arabera, eta foru-maila, dagozkion foru-arauak baititu gardentasunaren arloan. Autonomia erkidegoko administrazioaren eremura mugatutako aplikazioari dagokionez, publizitate aktiboko betebeharrak ez dira soilik erakunde publikoen eremura bideratzen, baizik eta jarduera publikoa bideratzeko baliatzen diren subjektu eta erakunde pribatuak ere lotzen dituzte, bai diru-laguntza edo laguntza publikoen hartzaileak direlako, bai administrazio-ahalak gauzatzen dituztelako edo zerbitzu publikoak ematen dituztelako, betiere legeko gaikuntza bereziak izatea edo dagozkien kontratu-harremanak egoteari kalterik egin gabe.

¹ Erakundearteko lankidetzaren adibidea: 2018an, Eusko Jaurlaritzak, 3 foru aldundiek eta 3 hiriburuetakoa udalek erabaki zuten baterako hautagaitza aurkeztea Gobernu Irekirako Nazioarteko Aliantzaren, tokiko OGPko kide gisa parte hartzeko. Horrenbestez, Euskadi Aliantzako kide den munduko 20 eskualdeetako bat bihurtu zen, eta, harrezkero, 2018-2020 aldirako Erakundearteko Ekintza Plana garatu da. Gaur egun, 2021-2024 aldirako Ekintza Plana gauzatzen ari da, eta lege-aurreproiektuak EAEn izandako hainbat ekimen amaitzen ditu, gobernu irekiaren kultura modu integralean bultzatuko duen lege-erregulazio bat ezartzeko. Nazioarteko estandarrei jarraituz, gardentasunaren, integritatearen, kontu-ematearen eta herritarren parte-hartzearen printzipioetan dago oinarrituta.

Legean bereizten den bigarren bloke handiari dagokionez, hau da, informatzaileak babesteko Europako sistema ezartzeari dagokionez, legeak uste du, estatuko legeak gaitzen duen aukera irekia izan arren, beharrezkoa dela euskal erakundeak oro har sistema bakarrera atxikitzea EAE osorako, eta horrek esan nahi du aplikazio-eremua zehaztu behar dela, aipatutako bigarren alderdiari dagokionez, Euskal Sektore Publiko osoan.

II. tituluak gardentasunaren arloko oinarrizko legeria espezifikaren eskemari jarraitzen dio, eta, testuinguru horretan, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen funtsezko edukia garatzen du EAEn. Lau kapitulutan banatzen da: lehenengoa, publizitate aktiboari buruzkoa; bigarrena, informazio publikoa eskuratzeari buruzkoa, publizitate aktiboaren elementu osagarri; hirugarrena, barneko plangintzari eta koordinazioari buruzkoa, Euskal Autonomia Erkidegoko ekintza publikoa kohesionatzeko aukera emango digutenak. Eta, azkenik, zehapen-araubideari buruzko kapitulu konplexu eta berritzaile bat sartu da, eragin berezia izango duena publizitate aktiboaren eta informazio publikorako sarbidearen arloko betebeharrak betetzeari dagokionez.

III. tituluak, plangintza publikoari buruzkoan, Administrazioaren zereginari datu eta konpromiso sorta sintetiko bat gehitu zaio, legeak "kontuak gizartean ematea" adierazpen deigarriarekin jaso duena.

IV. tituluak herritarren parte-hartzeari eta parte hartzeko prozesuei buruzkoa da, ikuspegi malgu eta moldagarriekin. Hiru kapitulutan banatzen da: lehenengoa herritarren parte-hartzeari buruzkoa da, bigarrenak herritarren parte-hartzearen erregistroa arautzen du, eta hirugarrenak interes-taldeen erregistroa.

V. tituluak Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzaren sorrerari eta diziplinari buruzkoa da.

AURKIBIDEA

I. TITULUA. Xedapen orokorrak

1. artikulua. Xedea
2. artikulua. Helburuak
3. artikulua. Funtzionamenduko eta herritarrekiko interakzioko printzipio orokorrak
4. artikulua. Definizioak
5. artikulua. Gardentasun konpromiso orokorrak
6. artikulua. Herritarren eskubideak eta betebeharrak gardentasunaren arloan
7. artikulua. Datu pertsonalen babesa
8. artikulua. Gardentasun arauen aplikazio-eremu materiala eta pertsonala
9. artikulua. Arau-hausteei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonen babesaren gaineko araudia aplikatzeko eremu material eta pertsonala

II. TITULUA – Jarduera publikoaren gardentasuna

I. KAPITULUA – Publizitate aktiboa

10. artikulua. Publizitate aktiboaren printzipio gidariak
11. artikulua. Publizitate aktiboaren arloko betebeharrak
12. artikulua. Publizitate aktiboaren betebeharrak betetzen direla kontrolatzea
13. artikulua. Gardentasunaren ataria
14. artikulua. Publizitatea behar duen informazioa
 15. art. Erakundeari eta antolamenduari buruzko informazioa
 16. art. Plangintzari eta ebaluazioari buruzko informazioa
 17. art. Garrantzi juridikoa duen informazioa
 18. art. Eragin ekonomikoa duen administrazio-jarduerari buruzko informazioa
 19. art. Kontratuei buruzko informazioa
 20. art. Jarduera publikoari buruzko informazioa
 21. art. Ekonomiari, aurrekontuei eta ondareari buruzko informazioa
 22. artikulua. Interes orokorreko informazioa
23. artikulua. Datuak berrerabiltzea eta irekitzea

II. kapitulua – Informazio publikorako irispidea

- 24. artikulua. Informazio publikora iristeko eskubidea
- 25. artikulua. Informazio publikoa eskatzen duen pertsonaren eskubideak
- 26. artikulua. Informazio publikora iristen diren pertsonen betebeharrak
- 27. artikulua. Informazio publikora iristeko eskaera
- 28. artikulua. Doakotasun printzipioa eta kostuak
- 29. artikulua. Informazio publikora iristeko eskubidearen mugak
- 30. artikulua. Datu pertsonalen babesa
- 31. artikulua. Iripide partziala
- 32. artikulua. Informazio publikora iristeko eskaerak izapidetzeko eta ebazteko organo eskudunak
- 33. artikulua. Prozedura Informazio publikorako irispidea
- 34. artikulua. Informazio publikora iristeko eskaera
- 35. artikulua. Informazio publikora iristeko eskaera ez onartzeko kausak
- 36. artikulua. Informazio publikora iristeko eskaera izapidetzea
- 37. artikulua. Informazio publikora iristeko eskaera ebaztea
- 38. artikulua. Informaziora iristeko eta entregatzeko formalizazioa
- 39. artikulua. Aurka egiteko prozedura
- 40. artikulua. Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzari aukerako erreklamazioa aurkeztea
- 41. artikulua. Bitartekaritza-prozedura

III. kapitulua – Plangintza eta koordinazioa

- 42. artikulua. Gardentasunaren arloko plangintza
- 43. artikulua. Sailen arteko koordinazioa gardentasunaren arloan

VI. kapitulua – Zehapen araubidea

- 44. artikulua. Zehapen araubidea
- 45. artikulua. Arduradunak
- 46. artikulua. Gardentasunaren arloko arau-hausteak
- 47. artikulua. Zehapenak
- 48. artikulua. Prozedura
- 49. artikulua. Zehatzeko ahalmena

III. TITULUA – Plangintza publikoa

- 50. artikulua. Gobernu programa
- 51. artikulua. Kontuak gizartean ematea

IV. titulua – Herritarren parte-hartzea

I. kapitulua – Herritarren parte-hartzea

- 52. artikulua. Parte-hartzearen helburua eta egituraketa
- 53. artikulua. Gobernu Irekiaren Plataforma

II. kapitulua.- Herritarren parte-hartzearen erregistroa

- 54. artikulua. Euskal Autonomia Erkidegoko herritarrek parte hartzeko eta lankide izateko erregistroa
- 55. artikulua. Parte-hartzea sustatzeko neurriak
- 56. artikulua. Parte hartzeko prozeduren eta bitartekoen berme eta eskubide komunak
- 57. artikulua. Herritarren parte-hartzetik eta lankidetzatik salbuetsitako gaiak.
- 58. artikulua. Parte-hartzeari eta lankidetzari buruzko txostena

III. kapitulua.- Interes Taldeen Erregistroa

- 59. artikulua. Euskal Autonomia Erkidegoko Interes Taldeen Erregistroa
- 60. artikulua. Interes taldeak
- 61. artikulua. Erregistrotik kanpo utzitako jarduerak eta erakundeak
- 62. artikulua. Izena ematea
- 63. artikulua. Erregistroaren edukia

- 64. artikulua. Aitortzaileen betebeharrak
- 65. artikulua. Jokabide-kodearen gutxieneko edukia

- 66. artikulua. Kontrola eta egiaztapena
- 67. artikulua. Ez-betetzeen kasuan aplikatu beharreko neurriak.
- 68. artikulua. Erregistroaren atxikipen organikoa eta erregelamendu-erregulazioa

V. TITULUA – Gardentasunaren Euskal Agintaritza

- 69. artikulua. Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritza sortzea
- 70. artikulua. Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzaren izaera
- 71. artikulua. Lege-araubidea
- 72. artikulua. Ekonomiaren eta aurrekontuen araubidea
- 73. artikulua. Langileen araubidea
- 74. artikulua. Kontratazioaren araubidea
- 75. artikulua. Laguntza juridikoaren araubidea
- 76. artikulua. Errekurtsoen araubidea
- 77. artikulua. Zirkularrak eta gomendioak.
- 78. artikulua. Zehatzeko ahalmena
- 79. artikulua. Antolaketa-egitura
- 80. artikulua. Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzaren Lehendakaritza
- 81. artikulua. Lehendakaritzaren eginkizunak
- 82. artikulua. Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzaren Aholku Batzordea
- 83. artikulua. Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzaren Urteko Jarduera Memoria
- 84. artikulua. Legebiltzarraren kontrola
- 85. artikulua. Gardentasuna

XEDAPEN IRAGANKORRA.-

AZKEN XEDAPENA.- Indarrean jartzea.

III.- GOGOETA OROKORRAK

Gure gogoetarako aurkeztu digute "*Euskadiko Gardentasun Lege-aurreproiektua*", Euskal Autonomia Erkidegoko Autonomia Estatutuaren abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoaren 10. artikuluko 2., 6. eta 24. paragrafoen eskumen eskusiboetan sartzen dena. Atal horiek arautzen dituzte bai autogobernu-erakundeen antolaketa, araubidea eta funtzionamendua, bai Euskal Autonomia Erkidegoko zuzenbide substantiboaren berezitasunetatik eta berezko antolamendutik datozen administrazio-prozedurako arauak, bai Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoa ere, Autonomia Estatutuko beste arau batzuek eragiten ez dioten bitartean.

Lege-mailako araua da, eta aukera emango du EAEko sektore publikoan gardentasuna sustatzeko antolamendu eta kudeaketa eredu finkatzeko, baita publizitate aktiboa bermatzeko oinarritzko tresnak finkatzeko ere. Horretarako, argitaratzeko betebeharrak ezarriko dira, plataforma eta kanal optimoak zabalkundeari begira, informazioa berrerabiltzeko baldintzak ezarriko dira, eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidea gauzatuko da.

Lege honetan, halaber, Euskal Sektore Publiko osoan arau-hausteei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonak babesteko sistema berria ezartzen amaitzeko aukera dugu, Europar Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2019ko urriaren 23ko 2019/1937 (EB) Zuzentarauaren eta haren transposizioaren ildo beretik (2019/1937 (EB) Zuzentaraua, Europar Batasuneko Zuzenbidearen arau-hausteei buruzko informazioa ematen duten pertsonak babesteari buruzkoa; 2/2023 Legea, otsailaren 20koa, arau-hausteei eta ustelkeriaren aurkako borrokari buruzko informazioa ematen duten pertsonak babestearen gainekoa). Europako Zuzenbideak bi helburu ditu: informatzaileak edo salatzaileak ("alerta-emaileak") babestea, eta informazio-kanal biren gutxieneko arauak ezartzea, bai enpresetako eta erakunde publikoetako barneko informazio-kanalak, bai kanpoko kanalak, herritarrei agintaritza publiko espezializatu batekiko komunikazioa eskaintzeko, zeren eta horrek guztiak konfiantza handiagoa sor baititezake, ingurune bakoitzean zalantzarik gabe sortuko liratekeen errepresaliak pairatzeko beldurrak uxatzeko aukera irekitzen delako.

Batzorde honek uste du **araua beharrezkoa eta egokia dela**. Gobernu irekiaren kultura modu integralean bultzatzeko helburuarekin bat gatoz, nazioarteko estandarrei jarraituz, gardentasunaren, integritatearen, kontuak ematearen eta herritarren parte-hartzearen printzipioetan oinarrituta. Hortik onura eztaba daezin batzuk datoz, beste helburu zehatzago batzuk dakartzatenak, baina horiek ere txalotzeko modukoak. Bereziki egokia iruditzen zaigu herritarren partaidetzarako ohiturak ezartzea, herritarren artean gardentasunaren kultura sustatzea eta ustelkeriaren aurka borrokatzea.

Era berean, uste dugu egokia dela publizitate aktiboaren betebeharrak erakunde publikoen eremura ez ezik, jarduera publikoa bideratzeko baliatzen diren subjektu eta erakunde pribatuetara ere bideratzea, bai diru-laguntza edo laguntza publikoen hartzaileak direlako, bai administrazio-ahalak gauzatzen dituztelako edo zerbitzu publikoak ematen dituztelako, betiere legezko gaikuntza bereziak egotea edo dagozkien kontratu-harremanak egoteari kalterik egin gabe.

Hori guztia, gogoeta espezifikotan adierazitakoa alde batera utzi gabe.

IV.- GOGOETA BEREZIAK

7. artikulua. Datu pertsonalen babesa

- 1.a) idatz-zatiak dakarrenez, datuak babesteko printzipioak bete behar dira kontserbazio-epari dagokionez, baina ez da epe hori aipatzen eta ez da aipatzen hori ezartzen duen araudirik. Gure ustez, kontuan hartu beharko litzateke.
- 1.d) idatz-zatian "egiaztatzeko" ezabatu eta "bermatzeko" jartzea proposatzen da, eta honela geratuko da testua:

d) Pertsonak identifikatzen dituzten datuak bereizteko datuak edo informazioa argitaratzen direnean, analisiak egin behar dira, disoziazio-prozesua leheneratzea ezinezkoa dela **bermatzeko**, edo neurritz kanpoko ahaleginak egin behar direla teknikaren egoera kontuan hartuta.
- 5. idatz-zatiko bigarren paragrafoan, "ahal du" ezabatu eta "behar du" jartzea proposatzen da. Honela geratuko da testua:

Informazioa eskatu zaion organo edo erakundeak egokitzen jotzen badu, arrazoizko zalantzak dituelako informazioa ematearen bidez kotasanari buruz, datuak babesteko eskubideak izan dezakeen eraginagatik, horri buruzko txostena eskatu **behar** du datuak babesteko ordezkaritari, betiere erakundeak figura hori badu aplikatu beharreko araudiaren arabera.

8. artikulua. Gardentasunaren gaineko arauen aplikazio-eremu material eta pertsonala

- 3. idatz-zatian zalantza sortzen zaigu atal honetan ezarritako erakundeei (Eusko Legebiltzarra, Herri Kontuen Euskal Epaitegia eta Arartekoa) 1. idatz-zatian ezarritako irismen bereko araudia aplikatzen zaien, eta hala ez bada, araudi hori lasaitzea justifikatuko litzatekeen.
- 4.c) idatz-zatian, hauxe gehitzea proposatzen da:

c) Itunpeko hezkuntza eta osasun zentroak, **soziosanitarioak, sozialak eta kulturalak**.

11. artikulua. Publizitate aktiboaren arloko betebeharrak

5. idatz-zatian hauxe aipatzen da: «*Lege honetan ezarritakoaren arabera argitaratu beharreko informazioa hiru hilean behin argitaratuko da, oro har, baina publizitatearen arloan araubide zorrotzagoa aurreikusten duten aplikatu beharreko beste xedapen espezifiko batzuetan xedatutakoari kalterik egin gabe, bai edukiari dagokionez, bai aldizkakotasunari dagokionez*».

Gure ustez, ez dago arrazoirik 8.1 artikuluko a) eta b) idatz-zatietan eta 8.3 artikuluan ezarritako erakundeek informazioa eskuragarri dagoenean ez argitaratzeko. Hori dela eta, hauxe gehitzea proposatzen da: "*Sektore publikoari dagokionez, 8.1 artikulua a) eta b) idatz-zatiak eta 8.3 artikulua, xedatzen denean*". Testua honela geratuko da:

"5. Lege honetan ezarritakoaren arabera argitaratu beharreko informazioa, **sektore publikoari dagokionez, 8.1 artikulua a) eta b) idatz-zatietan eta 8.3 artikuluan argitaratu beharko da, xedatzen denean, eta**, oro har, hiru hilean behin, baina publizitatearen arloan araubide zorrotzagoa aurreikusten duten aplikatu beharreko beste xedapen espezifiko batzuetan xedatutakoari kalterik egin gabe, bai edukiari dagokionez, bai aldizkakotasunari dagokionez".

14. artikulua. Publizitatea behar duen informazioa

Hauxe gehitzea proposatzen dugu:

Administrazio publikoek eta gardentasunaren gaineko betebeharrari lotutako gainerako erakunde eta antolakundeek kapitulu honetan zehazten den informazio garrantzitsua publiko egin beharko dute eremu hauexei buruz:

- Erakundeari eta antolamenduari buruzko informazioa
- Plangintzari eta ebaluazioari buruzko informazioa
- Garrantzi juridikoa duen informazioa
- Eragin ekonomikoa duen administrazio-jarduerari buruzko informazioa
- Kontratuei buruzko informazioa
- Jarduera publikoari buruzko informazioa
- Ekonomiari, aurrekontuei, **giza baliabideei** eta ondareari buruzko informazioa
- Interes orokorreko informazioa

15. artikulua. Erakundeari eta antolamenduari buruzko informazioa

2. idatz-zatian, herritarrek kasu bakoitzean eskumena duen pertsonarekiko komunikaziorako sarbidea izan dezaten, hauxe gehitzea proposatzen dugu:

2. Horretarako, eragindako erakundeek organigrama **funtzional eta operatibo** eguneratua izango dute, organoetako arduradunak identifikatzeko.

16. artikulua. Plangintzari eta ebaluazioari buruzko informazioa

1. idatz-zatian, hauxe gehitzea proposatzen dugu:

1.- Titulu honen aplikazio-eremuan sartzten diren subjektuek urteko eta urte anitzeko planak eta programak argitaratuko dituzte (**berdintasun planak eta jasangarritasun planak, besteak beste**), non helburu zehatzak ezarriko diren, baita horiek lortzeko aurreikusitako jarduerak, bitartekoak eta denbora ere.

17. artikulua. Garrantzi juridikoa duen informazioa

4.a) idatz-zatian, hauxe gehitzea proposatzen dugu:

b) Jarraibideak, akordioak, zirkularrak edo partikularrek edo beste organo batzuek egindako kontsulten erantzunak, zuzenbidearen interpretazioa diren edo herritarrentzat ondorio juridikoak dituzten neurrian, **datu pertsonalen babesa ziurtatuta.**

18. artikulua. Eragin ekonomikoa duen administrazio-jarduerari buruzko informazioa

2.c) idatz-zatian, hauxe gehitzea proposatzen dugu:

Informazio estatistikoa argitaratuko dute diru-laguntzen zenbateko osoari buruz, lehiaketa-prozeduraren bidez zein zuzenean emandakoen banakapenarekin, baita horietako bakoitzak diru-laguntzen aurrekontu osoarekiko duen ehuneko bolumenari buruz ere. **Halaber, konkurtsokoen kasuan, diru-laguntza kalkulatzeko lortutako puntuazioa adieraziko da.**

21. artikulua. Ekonomiari, aurrekontuei, giza baliabideei eta ondareari buruzko informazioa

Gure ustez, zerbitzuak emateko erabiltzen diren giza baliabideei buruzko informazioa aipatu beharko litzateke (giza baliabide erabilgarriak, behin-behinekotasuna eta zerbitzu azpikontratatuak...), are gehiago 51.2.b) artikuluaaren arabera giza baliabideei buruzko kontuak eman behar dituztela kontuan hartuta.

Horregatik, hauxe gehitzea proposatzen da, baita artikuluaaren tituluaren agertzen dena ere:

Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoak, sektore publikoa osatzen duten erakunde guztiei dagokienez, bere aurrekontuei buruzko informazioa argitaratuko du, aurrekontu-partida nagusiak deskribatuta, eta informazio eguneratua eta ulergarria emango du haiek betearazteari eta likidazioari buruz, zorpetze-mailari buruz eta administrazio publikoen aurrekontuen egonkortasuneko eta finantzen jasagarritasuneko helburuen betetze-mailari buruz, barnean hartuta haien finantzen eta ondarearen egoera adierazten duten aldagaiak, eman beharreko urteko kontuak, kanpo-kontrolako organoen kontu-auditoretzako eta fiskalizazioko txostenak, aplikatu beharreko aurrekontu, kontrol eta kontabilitatearen gaineko araudiarekin bat etorritik. **Halaber, beren jarduera egiteko erabili dituzten giza baliabideei buruzko informazioa emango dute, baita haien egiturari eta lan-osasunari buruzkoa ere.**

46. artikulua. Gardentasunaren arloko arau-hausteak

1. idatz-zatian, hauxe gehitzea proposatzen dugu:

c) Eskatzailearen eskaerari ez erantzutea Lege honen 36. artikulua.

Eskatutako informazioa emateko betebeharra ez betetzea arau-hauste oso larritzat tipifikatuz gero, berme handiagoa ematen zaio herritarri betebehara hori beteko duela, are gehiago legeak administrazio-isiltasuna baino arautzen ez duenean.

Hala, jatorrizko c) idatz-zatia d) idatz-zatia bihurtuko litzateke.

47. artikulua. Zehapenak

- 2. idatz-zatiari dagokionez, adierazi nahi dugu ez dela ulertzen 2. eta 3. idatz-zatien artean zehapen-zenbatekoak bereizteko arrazoi objektiboa.

Edozelan ere, arau-hauste larrien eta oso larrien edukiari dagokionez, ez dugu uste arau-hauste horiek, inola ere, ez-betetzearen deklarazio hutsa eta dagokion aldizkari ofizialean argitaratzea izan daitezkeenik, isunik ezarri barik.

- 4. idatz-zatia, hauxe gehitzea proposatzen dugu:

Zehapen horiek guztiak, osagarriak barne, ezartzeko eta mailakatzeko, egitateen larritasuna, **errepikapena** eta ondorioa hartuko dira kontuan, proportzionaltasun-printzipioaren arabera.

49. artikulua. Zehatzeko ahalmena

- 2. idatz-zatiari dagokionez, organo zehatzaileak sailetik kanpo egon beharko lukeen galdetzen diogu geure buruari.

51. artikulua. Kontuak gizartean ematea

- 2.b) idatz-zatian, hauxe gehitzea proposatzen dugu:

2. Horretarako, eta helburu hori betetzeko zehaztu daitezkeen garapenak alde batera utzi gabe, kontu ematearen barruan sartuko da Eusko Jaurlaritzak, Gobernu Irekiaren Plataformaren bidez, aurreko urteari buruzko alderdi hauexei buruzko informazioa zabaltzea, aurreko ekitaldiekin alderatuta izandako bilakaerarekin batera:

- Artatutako zerbitzu publikoen kostu globala eta unitarioa, herritar bakoitzeko.
- Aldi horretan enplegu publikoa osatu zuten giza baliabideak eta diruz lagundutako, **itundutako edo kontratatutako baliabide pribatuak bereiztea.**
- Lortutako gizarte-ongizateko helburu nagusiak.
- Egindako inbertsio publikoak eta haien eraginkortasunaren azterketa.
- Herrialdearen egoera azaltzen duten beste magnitude erraz batzuk, zorpetze-maila eta finantzen egoera barne.
- Etokizuneko konpromiso nagusiak.
- Behartsuenekiko konpromiso argiak eta eraginkorrak.

V. titulua. Gardentasunaren Euskal Agintaritza.

Geroko erregelamenduaren garapenari kalterik egin gabe, beharrezkotzat jotzen dugu legeak agintaritzaren xedea eta eginkizunak jasotzea, eta, bereziki, aurreikusitako bi zatiketak.

82. artikulua. Gardena-Gardentasunaren Euskal Agintaritzaren Aholku Batzordea

Horri dagokionez, gogoeta hauek egiten ditugu:

- Batzorde honen eginkizunak eta helburuak ere jaso beharko lirатеkeela uste dugu.
- Sektore publikoko ordezkari gehienek parte hartzen duten organo bat da. Logikoa dirudi kanpoko adituen eta eragile ekonomiko eta sozialen ordezkari handiagoa izatea.

V.- ONDORIOA

EGABek egokitzen du “Euskadiko Gardentasun Lege-aurreproiekoa” izapidetzea, betiere organo aholku-emaile honetan egin dituen gogoetekin.

Bilbon, 2023ko urriaren 27an



OE Presidentea
Javier Muñecas Herreras

Idazkari Nagusia
Olatz Jaureguizar Ugarte